



## **BALDINTZA ORRIAK, SAN JUAN JAIETAN KALEKO SALMENTAN JARDUTEKO EMATEN DIREN BAIMENAK ARAUTZEKOAK (2023)**

### **1. artikulua.- Helburua.**

Baldintza-agiri honek, 2023ko San Juan jaietan, kaleko salmentan jarduteko ematen diren baimenak arautzea du helburu.

### **2. artikulua.- Postuak jartzeko lekua, postuon gehieneko neurriak eta soinu-maila.**

Saltokiak, Berdintasun pasealekuan jarriko dira. Saltokien planoak (I. ERANSKINA), udal webgunean ([www.eibar.eus](http://www.eibar.eus)) eskura daiteke.

Interesdunek, lekua okupatzeko egiten duten eskaeran adierazi behar dute nahi duten saltokiaren neurria. Saltokiak, aurrealdean, ezingo du hartu 6 metro linealetik gorako tokirik eta ezta 3 metroko hondo edo sakonera baino handiagorik ere (berez saltoki den zer horretatik ateratzen diren elementuak barne, esate baterako: biserak, teilatutxoak edo lonak). Egiten diren eskaeretan esandako metro-kopurutik gorakorik eskatzen bada, ez dira onartuko.

Jarduera behar bezala egin dadin, herritarrei kalterik eragin gabe, eta ikuskizun publikoen eta jolas-jardueren ordutegiak ezartzen dituen urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren arabera, programatutako jardueraren zarata-maila eta ordutegia honako hau izango da:

- 7:00 a.m.-tik 23:00etara ez dira 65 dezibeliotik gorakoak izango.
- 23:00 p.m.-tik ixteko ordutegira arte ez dira 55 dezibeliotik gorakoak izango.

Jarduera-ordutegia hau izango da:

- Ekainak 16: 16:00etatik 23:00etara.
- Ekainak 17, 18, 22 eta 25: 11:00etatik 15:00etara eta 16:00etatik 23:00etara.
- Ekainak 23 eta 24: 11:00etatik 15:00etara eta 16:00etatik 1:00etara a.m.

### **3. artikulua.- Baimenaren iraupena.**

Baimenak aurreko puntuko jarduera-ordutegian adierazitakoa hartuko du.

Bi okupazio-aldi ezartzen dira:

- Aldi partziala: ekainaren 23tik 25era.
- Aldi osoa: ekainaren 16tik 18ra eta ekainaren 23tik 25era.

Aldi osoa eskatzen duten interesdunek lehentasuna izango dute saltokiak edo postuak ematerakoan.



#### **4. artikulua.- Saltokien edo postuen adjudikaziodunek ordaindu behar duten tasa.**

Saltokietako adjudikaziodunek dagokion Ordenantza Fiskalean ezarritako tasa ordainduko dute, udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik; ordenantza horren 4.2 atalak 0,62 €-ko tasa ezartzen du metro linealeko eta okupazio-eguneko.

Behin saltokiak adjudikatuz gero, garaiz emango da tasa ordaintzeko sistemari buruzko informazioa, izan ere, okupazioa, alde aurretik dagokion tasa ordaintzera baitago baldintzatuta.

Ez da utziko dagokion tasa ordaintzen ez duen saltokirik ipintzen.

#### **5. artikulua.- Postuen adjudikazioduna izateko bete behar diren baldintzak.**

Baimenaren titularra derrigortuta dago ondoko baldintza hauek betetzera:

- Alta emandakoa izatea baimena ematen zaion jarduera horri dagokion epigrafean eta Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren ordainketa egunean edukitzea, edo, zerga hori ordaintzetik salbuetsia egonez gero, Zergapekoen Erroldan alta emandakoa izatea.
- Gizarte Segurantzarekin dituen obligazioak egunean edukitzea.
- Zerga-betebeharrak egunean edukitzea.
- Eibarko Udalarekin dituen zerga-obligazioen ordainketak egunean edukitzea.
- Erantzukizun zibileko aseguruia izatea, okupazio-datan balioduna.

Ez da jateko produkturik saltzen utziko.

#### **6. artikulua.- Eskakerak aurkezteko epea eta lekua.**

Kaleko salmentan jarduteko baimena eskuratu nahi duten pertsona fisikoek zein juridikoek, aurtengo **otsailaren 20tik martxoaren 20ra bitartean** (egun biok barne) aurkeztu behar dituzte eskabideak.

Eskaera bakarra onartuko da pertsona edo entitate juridiko bakoitzeko.

San Juan jaietan salmenta-postuak jartzeko eskaera egiteak berekin dakar baldintza-orri hau ezagutzea eta onartzea, bai eta 5. artikuluan eskatzen diren baldintzak betetzea ere, betiere indarrean dagoen ekitaldi-urteari dagozkionak.

Eskaerak **elektronikoki** egingo dira [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus) udal webgunetik. Tramitea elektronikoki egiteko ziurtagiri digital bat (B@K-Q, NAN elektronikoa, IZENPE txartela, etab.) edukitzea beharrezkoa da.

#### **Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa:**

Elektronikoki bete behar den San Juan jaietan salmenta postuak jartzeko eskaera-formularioari honako dokumentazio hau erantsiko zaio:

- Eskatzailea nor den egiaztatzeko agiriak edo dokumentuak:
  - Pertsona fisikoen kasuan, Nortasun-agiri Nazionala. Beste herrialde batzuetakoek Atzerritarren identifikazio-zenbakia (AIZ) aurkeztu behar dute.
  - Pertsona juridikoen kasuan, IFZ.



- Legezko ordezkapenaren kasuan, legezko ordezkariaren NANA, IFZa edo horren balio bereko beste dokumenturen bat eta ordezkapena dokumentu bidez egiaztatua. Egiaztapen hori, zuzenbidean baliozkotzat har daitekeen edozein bitartekoren bidez egin daiteke (notario-ahalordeak, eskriturak...). Ordezkapena Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan erregistratuta egonez gero, ez da dokumentazio hau aurkeztu behar.
- Ekonomia-Jardueren gaineko Zergan alta emanda dagoela egiaztatzen duen dokumentazioa, aurtengo ekitaldiari dagokiona.
- Zerga-betebeharretan egunean dagoela frogatzen duen ziurtagiria, horretan eskumena duen Ogasun Sailak aurtengo ekitaldian egina.
- Erantzukizun zibileko aseguruia, balioduna okupazio egunean.

Prozedura hau tramitatzeke betebeharrak betetzen direla egiaztatzeke, bai eskaera egiterako unean, bai hurrengo berrikuspenetan, Eibarko Udalak honako informazio hau kontsultatuko die administrazio publiko eskudunei datu-bitartekaritzako plataformen bidez edo bitarteko telematikoen bidez:

- Udalarekiko ordainketan egunean egotea.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ordainduta izatea.
- Legezko ordezkapenen kasuan, ordezkapena Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan erregistratuta egotea.

Hori guztia bat dator Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 53.1.d) artikuluekin eta datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1.c) artikuluekin. Aurka eginez gero, aurka egiteko arrazoiak adierazi behar dira, eta dagokion dokumentazioa aurkeztu.

## **7. artikulua.- Baimenak adjudikatzeko prozedura.**

Eskabideak aurkezteko epea bukatutakoan, aurkeztutako agiriak kalifikatuko dira. Onartuen eta baztertuen behin-behineko bi zerrenda sortuko dira. Lehenengo zerrendan aldi osoa aukeratzen duten eskatzaileak sartuko dira, eta bigarren zerrendan, aldi partziala aukeratzen dutenak. Bi zerrendetan, baztertuen atalean, baztertzeko arrazoiak adieraziko da (baldintzak ez betetzea, osatu gabeko dokumentazioa).

Behin-behineko zerrenda horiek jendaurrean egonen dira Udalaren web orrian ([www.eibar.eus](http://www.eibar.eus)).

Aldi baterako zerrenden edukiaren kontra erreklamazioak jar daitezke 10 laneguneko epean, zerrendak udal webgunean ([www.eibar.eus](http://www.eibar.eus)) argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta.

Erreklamazioak eta dagokien dokumentazio guztia **elektronikoki** aurkeztuko behar da udal webguneko **DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA** tramitearen bidez ([www.eibar.eus](http://www.eibar.eus)).

Epe barruan aurkeztutako erreklamazioak ebatzi ondoren, onartuen eta baztertuen behin betiko 2 zerrendak argitaratuko dira. Onartutakoan bi zerrendek eskatzaile bakoitzak zozketan parte hartzeko erabiliko duen zenbakia jasoko dute. Behin betiko zerrenda horiek jendaurrean jarriko dira Udalaren web orrian ([www.eibar.eus](http://www.eibar.eus)), mahaiaren osaerarekin eta zozketa egiteko eguna eta tokiarekin batera.

Udal-baimena emateko prozedura zozketa bidez egingo da. Zozketa ekitaldi publikoan egingo da, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendekin batera iragarriko den egun eta orduan.



Lehenik eta behin, zozketa bat egingo da aldi osoari dagokion 1. zerrenda osatzen duten interesdunen artean.

- Onartuen behin betiko zerrendan agertzen diren eskatzaile adina zenbaki sartuko dira eta zenbaki bakar bat aterako da.
- Saltokiak atera den zenbakiari dagokion eskaera-zenbaki horretatik hasita esleituko dira hurrenez hurren, goranzko hurrenkeran. Azkenengo eskaera zenbakituari lehenengo zenbakiak segituko dio.
- Saltokiak ipintzeko dagoen lekuan hauxe izango da kokapen-ordena: elkarren segidan jarriko dira zozketaren hurrenkeran berean, Berdintasun pasealekuan.

1. zerrendako zozketa egin ondoren, bete gabeko postuak geratzen badira, beste zozketa bat egingo da 2. zerrendarako, aldi partzialari dagokiona. Zozketa 1. zerrendarako adierazitako moduan egingo da.

Zozketa(k) egin ondoren, esleitutako saltokien edo postuen zerrenda argitaratuko da. Zerrendan honako hauek sartuko dira: esleipendunak, esleitutako saltokiaren edo postuaren zenbakia, postuaren metro linealak, 2023ko ekainaren 12a baino lehen ordaindu beharreko tasaren zenbatekoa eta tasa ordaintzeko sistema. Zerrenda hori Udalaren web orrian argitaratuko da ([www.eibar.eus](http://www.eibar.eus)).

## **8. artikulua.- Baimenaren edukiera.**

Udalak emandako baimenetan ondoko informazio hau jasoko da:

- Titularraren izen-abizenak.
- Saltokiaren neurriak eta zenbakia.
- Ordaindu behar den zenbatekoa.

## **9. artikulua.- Produktuen bermea.**

Kalean saltzeko araubidez merkaturatzen edo saltzen diren produktuek osasun, higiene, normalizazio eta etiketatze alorretan ezarritakoa bete behar dute.

Udal agintaritzak, osasun eta kontsumo ikuskariek, esandako baldintza horiek betetzen ez dituzten produktuak konfiska ditzakete, eta hala balegokio, bidezkoa den zehapen-espeditentea ireki. Produktuak kautelaz atzemateko erabakia har daiteke.

## **10. artikulua.- Salerosketen egiaztagiria.**

Saltzaileak zerbait saltzen duenean, erosleak eskatzen badio, derrigorrez entregatu behar dio faktura, ticketa edo erreziboa.

## **11. artikulua.- Garbiketa.**

Saltzaileek, egunaren amaieran, postuek hartu duten lekua garbitu egin behar dute eta hango hondakinak eta zikinak kendu, kale-salmentako merkataritza-jardueran aritzeko erabili den leku hori zikina egon ez dadin.



## **12. artikulua.- Mugak lekua okupatzerakoan.**

Okupazio-denbora barruan, ezingo da ibilgailurik sartu saltokien esparru barruan; sar daitezkeen ibilgailu bakarrak kaleko salmentarako propio prestatutako ibilgailuak izango dira eta bakarrik saltokiak muntatzeko eta desmuntatzeko unean.

## **13. artikulua.- Arau-haustea eta zehapenak.**

Arau-hausteetan eta zehapenetan, denda batetik kanpoko salmenta arautzen duen Ordenantza Arauemailearen 13. eta 14. artikuluek ezarritakoari egingo zaio men.

Eibarren, 2023ko otsailaren 6an.